

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

598

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez hauteskundeak iragartzen baitira «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko kontseilukideak hautatzeko.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Aginduaren bidez, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Arautegia onartu zen, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Arautegia aldatu zen, eta haren testu bategina onartu zen. Bada, aipatutako lehenengo arautegi horretako 32.3 artikuluan ezartzen denez, Kontseilu Arautzaileko hautetsiak lau urtetik behin berrituko dira, eta lehengoak berriz hautatu ahal izango dira. Kontseilukide hautetsien agintaldia bukatuta dagoenez, haien agintaldia luzatzen da kontseilukide berriak hautatu arte, eta hauteskundeak deitu eta arautu behar dira.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko 6 kontseilukideak hautatzeko prozedura ezartzen da, eta hartarako deia egiten. Kontseilukide horiek Jatorri Deituraren Arautegiaren 32. artikuluko 1. zenbakiko c) eta d) letretan aipatutako sektoreen ordezkariak izango dira, mahats-ekoizleen sektorearen eta elaborratzaileen sektorearen ordezkariak, alegia.

2. artikulua.– Hauteskunde-egutegia.

1.– Hauteskunde-prozesurako egutegia, egun naturaletan emana, agindu honen I. eranskinean dago.

2.– Hauteskunde-egutegian finkatutako egunen bat larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun balioduna prestatuko da horretarako.

3. artikulua.– Hauteskunde Batzordea.

1.– «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Hauteskunde Batzordea sortzen da.

2.– Hauteskunde Batzordea Kontseilu Arautzailearen egoitzan, hau da, Mendibile Jauregian kokatuko da (Mendibile auzoa 42, Leioa, Bizkaia), eta hauek izango dira batzordekideak:

Batzordeburua: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak izendatuko du.

Batzordeburuordea: Bizkaiko Foru Aldundian nekazaritzaren arloko eskumena duen saileko titularrak izendatuko du.

Kontseilukideak:

– (1) Aholkulari juridiko bat, Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak izendatua; batzordeko idazkari-lanak egingo ditu.

– (1) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak izendaturiko pertsona bat.

– (1) Sindikatu-izaerako Nekazaritza Erakunde Profesionalen ordezkari bat; Jatorri Deituraren lurralde-eremuan ezarritako sindikatu-izaerako Nekazaritza Erakunde Profesionalen akordio bidez izendatuko da.

Hauteskunde Batzordea eratzeke I. eranskinean ezarritako eguna baino lehen hitzartu beharko da akordio hori. Ordurako akordiorik ez badago, berriz, Batzordea eratzeke egunean egingo da izendapena, zozketa bidez, ordezkari izateko aurkeztutako hautagaien artean.

– (1) «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren idazkari-gerentea.

3.– Hona hemen Hauteskunde Batzordearen egitekoak:

a) Jatorri Deituraren erregistroetan inskribaturiko hautesleen erroldak argitaratzea, eta ikusgai jartzea horretarako zehaztuko diren tokietan.

b) Aipatutako zerrendei buruzko erreklamazioak lehenengo auzialdian ebaztea, eta erabaki horien aurka aurkeztu diren errekurtsioen berri ematea Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzari, zuzendaritza horrek ebazpena eman dezan.

c) Behin betiko erroldak onestea.

d) Kontseilukide izateko hautagaien aurkezpen-paperak jasotzea.

e) Hautagaiak aldarrikatzea.

f) Hauteskunde Mahaia eratzea.

g) Bozketak zaintzea.

h) Kontseilukide hautetsiak aldarrikatzea.

i) Hauteskunde-prozesua bermatzea Kontseilu Arautzaileko kontseiluburuaren eta kontseiluburuordearen egitekoak egingo dituztenak proposatu arte.

4.– Agiriak zaintzea eta erabakiak betetzea izango da idazkariaren egitekoa.

II. KAPITULUA

HAUTESLE-ERROLDAK ETA HORIEK IKUSGAI JARTZEA

4. artikulua.– Erroldak prestatzea.

1.– Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileak prestatuko ditu hautesle-erroldak edo -azpie-rroldak, agindu hau indarrean jartzen den unean Jatorri Deituraren Arautegiaren 15. artikuluan jasotako erregistroetan inskribaturik dauden pertsonak aintzat hartuz; honela:

A) Mahastizainen erroldan hiru (3) azpieroalda ezarri dira:

V-1.– 2022ko abenduaren 1ean 4,08 hektarea baino gutxiago inskribatuta duten mahastizainen azpieroalda; kontseilukide bat hautatuko du.

V-2.– 2022ko abenduaren 1ean 4,08 hektarea edo gehiago eta 14,90 hektarea baino gutxiago inskribatuta duten mahastizainen azpieroalda; kontseilukide bat hautatuko du.

V-3.– 2022ko abenduaren 1ean 14,90 hektarea edo gehiago inskribatuta duten mahastizainen azpieroalda; kontseilukide bat hautatuko du.

B) Upeltegien erroldan, hiru (3) azpieroalda ezarri dira:

B-1.– 2022ko abenduaren 1era arte 45.000 litrotik behera ekoitzi duten upeltegiak; kontseilukide bat hautatuko dute.

B-2.– 2022ko abenduaren 1era arte 45.000 litro edo gehiago eta 108.000 litrotik behera ekoitzi duten upeltegiak; kontseilukide bat hautatuko dute.

B-3.– 2022ko abenduaren 1era arte 108.000 litro edo gehiago ekoitzi duten upeltegiak; kontseilukide bat hautatuko dute.

2.– Ekoizleen eta elaboratzaileen errolda bakoitzean hiru pertsona izango dira kontseilukide, eta dagozkien azpieroaldetan kontseilukide bat azpieroalda bakoitzeko. Horregatik, II. eranskinean (boto-papera), titular baten eta ordezkari baten izendapena baino ez da jasotzen.

5. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Hautesleen erroldetan egon ahal izateko, beharrezkoa izango da:

a) Agindu hau indarrean jartzen denean, Kontseilu Arautzailearen erregistroetan inskribaturik egotea.

b) Jatorri Deituraren Erregelamenduak arautzen dituen arloetan arau-hauste larriak egiteagatik zehapenik jaso ez izana agindu hau argitaratu aurreko urtean.

c) Eskubide zibilez baliatzeko desgaiturik ez egotea. Kontseilu Arautzailearen erregistroetan azaltzen den pertsona bera izango da eskubidearen jabea.

d) Egunean izatea Jatorri Deiturari dagozkion kuotak eta gainerako betebeharrak.

2.– Eskubidearen pertsona titulartzat joko da Kontseilu Arautzailearen Erregistroetan jasota dagoena.

6. artikulua.– Erroldak prestatzea.

Elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzak ezarritako ereduaren arabera prestatuko dira hautesle-erroldak. Errolda horietan, ordena alfabetikoaren arabera azalduko dira hautesleak udalerrri bakoitzean.

7. artikulua.– Erroldak ikusgai jartzea.

1.– Kontseilua Arautzaileak Hauteskunde Batzordeari bidaliko dizkio hautesle-erroldak, ikusgai jartzeko behar den beste ale bidali ere. Hauteskunde Batzordeak, bestalde, bidezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ondoren, hautesle-erroldak bideratuko ditu, betiere, Batzordeko idazkariaren izenpearekin eta batzordeburuaren oniritziarekin. Orobat, Batzordeak erroldak ikusgai jarriko ditu Kontseilu Arautzailearen egoitzan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren nekazaritzako eskualde-bulegoetan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzan.

2.– Errolden gaineko erreklamazioak eta errekursoak I. eranskineko egutegira doituko dira.

3.– Ekoizleen sektorearen (mahastien erregistroa) eta elaboratzaileen sektorearen (upeltegi elaboratzaileak eta botilaratzaileak) erroldetan aldi berean inskribatuta dauden titularrek bi erroldetarako botoa eman ahal izango dute.

III. KAPITULUA

KONTSEILU ARAUTZAILEKO KONTSEILUKIDE IZATEKO HAUTAGAI-ZERRENDAK AURKEZTEA: HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA ETA FORMA

8. artikulua.– Hautagai-zerrenden eskakizunak.

1.– Errolda/azpieroalda bakoitzean ageri direnak izango dira errolda/azpieroalda bakoitzeko kontseilukideak aukeratzeko hautagai, betiere Jatorri Deituraren Arautegiak arautzen dituen arloetan arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenik jaso ez badute agindu hau argitaratu aurreko urtean.

2.– Kontseilukideak eta ordezkioak hautatzeko hautagai-zerrendak irekiak izango dira errolda/azpieroalda bakoitzean.

3.– Hauteskunde Batzordeari aurkeztu behar zaizkio talde bakoitza ordezkatu behar duten kontseilukideak aukeratzeko hautagai-zerrendak. Horretarako, aldarrikatze-eskabidea aurkeztu behar da, I. eranskinean zehaztutako epean.

4.– Inork, ez norberaren izenean ez besteren baten izenean, ezingo du kontseilukide-kargu bat baino gehiago izan Kontseiluan.

9. artikulua.– Hautagai-zerrendak proposatzea.

1.– Nekazaritzako erakundeek, profesionalen elkarteek eta erakunde independenteek aurkeztu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak, baina, dena delako errolda edo azpieroaldako hautesleen ehuneko hogeiren (% 20) abala beharko dute, edonola ere.

2.– Ezein nekazaritza erakunde profesionalak ezin izango du hautagai-zerrenda bat baino gehiago aurkeztu errolda edo azpieroalda bakoitzeko. Hautagai-zerrendak aurkeztean, ezin izango da erabili alderdi politikoen ikur edo bereizgarriak.

3.– Baldin eta nekazaritzako erakunde profesional bat beste handiago batean sarturik badago, ezin izango du hautagai-zerrendarik aurkeztu, handiago horrek aurkeztuz gero.

4.– Nekazaritzako erakundeek hautagai-zerrendarik aurkeztuz gero, haien estatutuen arabera ordezkari direnek izenpetu beharko dituzte zerrendok. Gainerako hautagai-zerrenden kasuan, sustatzaileek aurkeztu beharko dituzte.

5.– Zerrendak hautesleek aurkeztuz gero, izenpetzaileen nortasuna egiaztatu beharko da Hauteskunde Batzordearen aurrean, eta, orduan, proposatutakoak eta atxikimendua adierazi dutenak azaldu beharreko erroldetan azaltzen ote diren egiaztatuko du Batzordeak.

6.– Hauteskunde Batzordeari aurkeztuko zaizkio zerrendok, datu hauek argi azalduta:

- a) Proposamena egiten duen erakundearen edo elkartearen izena eta hautagai-zerrendarena.
- b) Sartutako hautagaien izen-abizenak.
- c) Zerrenda bakoitzeko hautagaien eta ordezkoen hurrenkera.

Hauteskunde Batzordeko idazkariak jasoko du zerrenda zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu den, horretarako bete beharreko eginbideak beteta.

7.– Proposatutako hautagaiek hautagarri izateko baldintzak bete behar dituzte, eta, horrez gain, hautagai-zerrenda onartzen dutelako adierazpena izenpetu behar dute, zeina zerrendarekin batera aurkeztu behar baita.

8.– Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak onartzeko, ezinbestekoa da zerrenda bakoitzak ordezkari bat izendatzea, jakinarazpenak berari bidaltzeko. Ordezkari horrek ez du zertan hautagai izan. Zerrenda aurkezten denean, ordezkariaren helbidea adieraziko zaio Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzari, aurrerantzean jakinarazpenak ordezkari horri bidaltzeko.

10. artikulua.– Hautagaitzak aldarrikatzea.

1.– Agindu honen I. eranskinean jasotakoaren arabera, hautagaiak aurkezteko epea bukatzean, hautagaiak irmoak izango dira, eta Batzar Orokorrak aldarrikatuko ditu. Orobat, Batzarrak bazter utziko ditu, ofizioz edo salaketa bidez, hautagarritasun-eskakizunak betetzen ez dituzten hautagaiak edo aurkezteko eta aldarrikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenak.

2.– Hautagaiak aldarrikatutakoan, Hauteskunde Batzordeak ikusgai jarriko ditu 7.1 artikuluan hautesle-erroldak ikusgai jartzeko adierazitako tokietan.

3.– Hautagaiak aldarrikatu eta ikusgai jarri ondoren, haren aurkako errekursoak aurkeztu ahal izango zaizkio Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzari, I. eranskinean ezarritako epeen arabera, betiere.

4.– Erroldaren edo azpieroaldaren batean hautagai-zerrenda bakarra aurkezten bada, Hauteskunde Batzordeak –aurreko paragrafoan aipatutako errekursoak ebatzitakoan, halakorik egonez gero– zerrenda horretako hautagaiak aldarrikatuko ditu kontseilukide eta ordezeko, eta bozketa-rik egin gabe esleituko dizkie kontseilukide-karguak. Eta kasu guztietan hori bera gertatuz gero, hauteskunde-prozesuak aurrera egingo du: aldarrikatutako hautagaiak karguez jabetuko dira, eta kontseiluburua eta kontseiluburuordea hautatuko dituzte, horretarako zehaztuko den egunean.

IV. KAPITULUA

HAUTESKUNDE MAHAIAREN ERAKETA, BOZKETA ETA BOTO-ZENBAKETA

11. artikulua.– Hauteskunde Mahaia.

1.– Hauek dira Hauteskunde Mahaiaren egitekoak: bozketaren buru jardutea, botoak zenbatzea eta bozketaren garbitasuna zaintzea.

2.– Hauteskunde Batzordeak izendatutako mahaiburu batek (1) eta bi ondokok (2) osatuko dute Hauteskunde Mahaia. Agindu honetako I. eranskinean azaltzen den egunean, zozketaren bidez hautatuko dira karguok hautesleen artetik. Jardunbide bera erabiliz, mahaiburuaren eta mahaiki-deen bina ordezeko izendatuko dira.

Kontseilukide izateko hautagaiak eta horien ordezekoak ezin izango dira Hauteskunde Mahaiko parte izan.

3.– Hautagai-zerrendek ikuskatzaileak izendatu ahal izango dituzte Hauteskunde Batzordearen aurrean, bozketa eta boto-zenbaketa ikus ditzaten, eta Hauteskunde Mahaian parte hartuko dute. Ikuskatzaile horiek hautesle-eroldan egon behar dira, eta ezingo dira hautagai izan.

12. artikulua.– Hauteskunde Mahaia eratzea.

1.– Hauteskunde Mahaiko kide izendatuak nahitaez bete beharko du eginkizun hori. Izendapena egin ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie, eta horiek, izendapena ez onartzeko arrazoirik izanez gero, arrazoi hori azaldu eta agiri bidez frogatu behar izango dute I. eranskinean ezarritako epean. Hauteskunde Batzordeak ebatziko du, eta ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

2.– Mahaian egotea galarazten duen arrazoia geroago sortzen bada, berehala ohartaraziko da, eta beti Mahaia eratu baino lehenago. Kasu horietan, Batzordeak berehala emango du ebazpena.

3.– Mahaia osatzeko behar diren kide guztiak agertzen ez badira, agertutako kideren batek hala jakinaraziko dio Hauteskunde Batzordeari; Batzordeak, jarraian, hauteskundeak eta boto-zenbaketa ondo egiteko pertsona egokiak izendatu ahal izango ditu, askatasunez.

13. artikulua.– Hauteskunde Mahaia eratzea.

1.– Bozketa-egunean, mahaiburua, ondokoak eta ordezekoak 09:00etan bilduko dira Kontseilu Arautzailearen egoitzan, bozketa egingo den tokian, alegia.

2.– Mahaiburua azaltzen ez bada, lehenengo ordezekoak ordeztuko du, eta, hori ere azaltzen ez bada, bigarren ordezekoak. Eta hori ere ez bada azaltzen, lehenengo ondokoak eta bigarren ondokoak, ordena horretan. Mahaiburu dihardutenen ondokoak edo azaltzen ez direnak ordeztuko dituzte haien ordezekoak.

3.– Hauteskunde Mahaia ezingo da inola ere eratu, mahaiburua eta bi ondoko han ez badaude.

4.– Mahaiburu diharduenak, 09:30ean, Hauteskunde Mahaiaren eraketa-akta egingo du, eta berak, ondokoek eta, halakorik bada, ikuskatzaileek izenpetuko dute.

5.– Aktan hauek jasoko dira, ezinbestean: Hauteskunde Mahaia osatzen duten pertsonak, ikuskatzaileen zerrenda (halakorik egonez gero), ze hautagai-zerrenda ordezkatzeko duten adierazita.

6.– Mahaiburuak, bozketa egiten den lekuan, aginte-ahalmen osoa izango du ordena zaintzeko, hautesleen askatasuna bermatzeko eta legea betetzen dela ziurtatzeko.

14. artikulua.– Agiriak.

1.– Hauek dira Hauteskunde Mahaiak bete behar dituen eta Hauteskunde Batzordeari bidali behar dizkion agiriak:

- Mahaia eratzeako akta.
- Ikuskatzaileen zerrenda.
- Boto-zenbaketaren akta.

2.– Zerrenden ordezkariak, hautagai-zerrendetako kideak edo mahaiko ikuskatzaileak eskatuz gero, Hauteskunde Mahaia boto-zenbaketaren aktaren ziurtagiriak egingo ditu.

3.– Hauteskunde Batzordeak boto-paperak eta gutun-azalak emango dizkio Hauteskunde Mahaiari, mahaiburuak izenpetutako jaso-agiriaren truke. Halaber, hautagai-zerrenden ordezkariak emango zaizkie, dagozkien erroldetan inskribatutako hautesleen kopuru proportzionalarekin bat etorriaz.

4.– Boto-paperak eta gutun-azalak Hauteskunde Batzordeak zehaztutako koloreetan egingo dira, eta horien ezaugarriak II. eranskinean adierazita daude.

15. artikulua.– Bozketa.

1.– Mahaiaren eratze-akta emanda, 10:00etan hasiko da bozketa, aldi hauetan egingo baita: 10:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 20:00etara.

2.– Ezinbesteko arrazoia beharko da bozketa ez hasteko, edo, hasita badago, bertan behera uzteko; horren erantzulea mahaiburua izango da, zeinak, idazki arrazoitu baten bidez, horri buruzko ebazpena emango baitu. Idazki hori berehala bidaliko zaio Hauteskunde Batzordeari, azaldutako arrazoiak azter ditzan eta, bidezkoa bada, erantzukizunak eska ditzan. Aipatutako idazkiaren kopia mahaiburuaren esku geratuko da.

3.– Bozketa bertan behera geratuz gero, ordura arte emandako botoak ez dira kontutan hartuko, ezta zenbatuko ere. Mahaiburuak hauteskontzietako boto-paperak suntsitzeko aginduko du, eta horrela jasoko da aurreko paragrafoan aipaturiko idazkian.

4.– Botoa emateko eskubidea egiaztatzeko, beharrezkoa da hauteslea erroldako zerrenda ziurtatuan inskribaturik egon dadin eta bere nortasuna agiriaren edo pasaportearen bidez frogatu dezan.

5.– Ez bozketa-tokian, ez inguruetan, ezin izango da inolako propagandarik egin inolako hautagai-zerrendaren alde.

6.– Bozketa egiten den lekuan, Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzailearen egoitzan, bi hauteskontzietan jarriko dira: bat, Mahastien Erregistroaren Erroldan inskribatutako pertsonen botoak jasotzeko, eta, bestea, Upeltegi Elaboratzaileen eta Botilaratzaileen Erregistroan inskribatutako pertsonen botoak jasotzeko. Bi erroldetan, inskribatutako bakoitzari boto bakarra dagokio.

7.– Bozketa pertsonala eta isilpekoa izango da, eta mahaiburuak emango dio hasiera, honako hau esanda: «bozketa hasten da». Hautesleak banan-banan inguratuko dira mahaira, eta ondo-koek eta ikuskatzaileak hautesle-erroldak aztertu eta boto-ematearen izena han ageri dela, eta, bere nortasuna benetakoa dela egiaztatu ondoren, botoa ematera joan dela idatziko dute. Ondoren, hautesleak eskutik eskura emango dio botoa mahaiburuari, dagokion koloreko gutun-azal batean sartuta. Mahaiburuak, hauteslearen izena ahoskatutakoan, «botoa ematen du» esan, eta hauteskontzian sartuko du boto-papera.

8.– 20:00etan, mahaiburuak bozketa bukatzeko dagoela iragarriko du eta ez dio inori bozketa-tokira sartzen utziko. Bozketa-tokian hauteslerik geratuz gero, mahaiburuak galdetuko du ea baten bat botoa eman gabe dagoen, eta, horrela izanez gero, bozketa-tokiaren barruan dauden horien botoak onartuko ditu.

Ondoren, mahaiburuak, mahaikideak eta –egonez gero– kontu-hartzaileak emango dute botoa. Eta haiek guztiek izenpetuko dituzte aktak.

9.– Mahaiburuak jasotako boto-paperen kopuruak, gutxien-gutxienez, hautesle-kopurua halako bi izan behar du.

10.– Kontseilu Arautzailearen barruko errolda bakoitzari kontseilukide-kopuru jakin bat dagokio, eta, gehienez ere, beste horrenbeste hautagairi eman ahal izango zaio botoa eredu ofizialeko boto-paperen bidez. Hortaz, hortik gorako boto-kopurua dakarten boto-paperak baliorik gabe utziko dira.

16. artikulua.– Zenbaketa.

1.– Bozketa bukatutakoan, mahaiburuak bozketa itxita dagoela adieraziko du, eta botoak zenbatzeari ekingo zaio. Horretarako, banan-banan aterako dira boto-paperak hautestontzietatik, eta ozenki irakurriko dira hautatutako hautagaien izenak. Mahaiburuak boto-paperak irakurriko dizkie ondokoei eta ikuskatzaileei; jarraian, boto-paperak erakutsiko dizkie; eta, azkenean, egiaztatuko da boto-paperen kopurua eta zenbatutako hautesleena bat ote datozen.

2.– Hauek izango dira boto baliogabeak:

a) Ofiziala ez den boto-paperean emandako botoa.

b) Edozein arrazoi dela-eta, hautatutako hautagaia argi zehazten ez dutenak, edo erroldari dagokion kontseilukide-kopurutik gorako boto-kopurua dakartenak.

3.– Ezein hautagairen aldeko aukerarik adierazten ez duten boto-paperak hartuko dira boto zuritzat.

4.– Goiko jarraibideen arabera botoak zenbatuta, mahaiburuak galdetuko du proposamenik ote dagoen boto-zenbaketaren aurka. Proposamenik egiten ez bada, edo egindakoak mahaiko kideen gehiengoz ebatzi ondoren, mahaiburuak ozenki adieraziko du bozketaren emaitza: boto-emaeleen kopurua, boto-paper baliiodunena, baliogabeko boto-paperena, boto zuriena eta hautagai bakoitzak lortutako botoena.

5.– Bertaratutako guztien aurrean apurtuko dira hautestontzietatik ateratako boto-paperak. Hala ere, baliogabeko bototzat jotakoak edo erreklamazioen bat izan dutenak gorde egingo dira, beti ere mahaiko kide guztiek izenpetuta eta bozketako aktari erantsita.

6.– Zeregin guztiak amaituta, mahaiburuak, ondokoek eta ikuskatzaileek (halakorik egonez gero) bozketako akta izenpetuko dute. Akta horretan, hauek zehaztu beharko dira: erroldaren araberrako hautesle-kopurua, botoa eman duten hautesleen kopurua, boto-paper baliiodunena, boto-paper baliogabeena, boto-paper zuriena eta aldarrikatutako hautagai bakoitzak lortutako botoena. Horrekin guztiarekin batera, hauek azalduko dira laburki: egindako erreklamazioak edo kexak, Mahaiak emandako ebazpenak eta gertatutako gorabeherak (halakorik egonez gero), gorabehera horiek sorrarazi dituztenen izen-abizenak adierazita, betiere (III. eranskina, boto-zenbaketako akta-eredua).

7.– Jarraian, emaitzen ziurtagiria egingo da eta bozketa egin den egoitzako leku ageri batean jarriko da. Boto-zenbaketako jatorrizko akta Hauteskunde Batzordeari igorriko zaio, baita bozketaren eraketako akta, eta baliogabeko boto-paperak eta erreklamazioa izan dutenak ere.

V. KAPITULUA

HAUTATUTAKO KONTSEILUKIDE TITULAR ETA ORDEZKOEN ALDARRIKAPENA

KONTSEILU ARAUTZAILEKO KONTSEILUBURUA ETA
KONTSEILUBURUORDEA HAUTATZEKO PROZEDURA

17. artikulua.– Hautatutako kontseilukide titular eta ordezkoen aldarrikapena.

1.– Hauteskunde Mahaiaren hauteskunde-aktak jasota, Hauteskunde Batzordeak kontseilukide-karguak esleituko ditu, irizpide hauen arabera:

a) Errolda edo azpieroalda bakoitzean boto gehien lortu dituzten hautagaiei esleituko zaizkie kontseilukide-karguak, eta ordezkoen postuak, berriz, boto-paperetan ordezeko agertzen direnei.

b) Berdinketarik egonez gero, zozketaren bidez egingo da hautatutako karguen esleipena.

2.– Karguak esleitu ondoren, Hauteskunde Batzordeak Kontseilu Arautzaileko kontseilukide hautetsiak aldarrikatuko ditu kontseiluburuaren bidez, hargatik eragotzi gabe 10.4 artikuluan xedatutakoa.

3.– Aldarrikatutako kontseilukideen aurkako errekursoak I. eranskineko egutegiari egokituko zaizkie.

4.– Kideak aldarrikatutakoan, kide hautetsiei behar diren egiaztagutunak bidaliko zaizkie, I. eranskinean ezarritako dataren arabera.

18. artikulua.– Kontseilu Arautzaileko kontseiluburua eta kontseiluburuordea hautatzeko prozedura.

1.– Hauteskunde-egutegian zehaztutako egunean (I. eranskina), Kontseilu Arautzaileak osoko bilkura egingo du. Bilkura horretan, kontseilukide hautetsiak karguaz jabetuko dira, eta hala egingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko titullarrak zein Bizkaiko Foru Aldundian nekazaritzaren arloko eskumena duen saileko titullarrak izendatutakoek ere.

2.– Segidan, eta bilkura berean, kontseilukideek kontseiluburua eta kontseiluburuordea hautatuko dituzte Osoko Bilkurako kontseilukide hautetsien bi herenaren gehiengoz. Kontseilukide hautatu hauetako bat edo beste pertsona bat hauta daiteke kargurako. Horren berri eman beharko zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, honek izendatu dezan. Hautagaiek lortutako botoak jasoko dira.

3.– Karguetako bat kontseilukideen artetik hautatuz gero, ez da kontseilukidearen tokia beteko, parekidetasuna ez galtzeko. Kasu horretan, gainera, kontseiluburuak kalitateko botoa galduko du.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Egungo Kontseilu Arautzailearen gobernu-organoen agintaldia luzatzen da, eta hauteskunde-deialdi honen arabera hautatutako kontseilukide berriek karguak hartzean amaituko dituzte gobernu-organo horiek haien egitekoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arau hau ezartzean zalantzarik sortuz gero, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren arabera ebatziko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Baldin eta, kontseilukideen agintaldiko lau urteetan zehar, arau honetan xedatu legez hautatutako pertsonaren batek ordezkatzeko duen enpresarekiko lotura hausten badu edo hautagai proposatu duen erakundekoa izateari uzten badio, orduan baja hartuko du kontseilukide moduan, eta dagokion ordezkotik hartuko du bere tokia. Irizpide bera erabiliko da baldin eta kontseilukide bat: a) bere egitekoetatik baztertzen badu Kontseilu Arautzaileak agintaldian zehar, jatorri-deituren arloko arau-hauste larria egin duelako, dela berak zuzenean, dela bera partaide den izen edo sinadura sozialak, edo b) agintaldian zehar hiltzen bada edo berak ordezkaturako izen edo sinadura soziala desagertzen bada.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietako salan bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 26a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

HAUTESKUNDE-EGUTEGIA

0.– Hauteskunde-deialdiaren agindua indarrean jartzea (agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean).

0.+ 15.– «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Hauteskunde Batzordea eratzea.

15 + 5.– Erroldak ikusgai jartzea, 7.1 artikuluan zehaztutako tokietan.

20 + 10.– Behin-behineko errolden aurkako erreklamazioak aurkeztea Hauteskunde Batzordeari.

30 + 4.– Hauteskunde Batzordeak erreklamazioak ebaztea.

34 + 3.– Behin betiko erroldak ikusgai jartzea.

37 + 3.– Behin betiko errolden aurkako errekurtsioak aurkeztea, Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularren aurrean.

40 + 5.– Errolden gaineko errekurtsioak ebaztea, Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzak.

45 + 3.– Errolda irmoak ikusgai jartzea.

48 + 4.– Kontseilu Arautzaileko kontseilukide izateko hautagaiak aurkeztea Hauteskunde Batzordeari.

52 + 4.– Jatorri Deituraren Hauteskunde Batzordeak hautagaiak aldarrikatzea.

56 + 4.– Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzari hautagaien aldarrikapenaren aurkako errekurtsioak aurkeztea.

60 + 5.– Aurreko errekurtsioak ebaztea.

65 + 3.– Hautagaien behin betiko zerrendak ikusgai jartzea.

68 + 4.– Hauteskunde Batzordeak Hauteskunde Mahaiko kideak izendatzea, zozketa bidez, eta interesdunei jakinaraztea.

72 + 3.– Hauteskunde Mahaiko kideen izendapenaren inguruko desenkusak aurkeztea Hauteskunde Batzordeari.

75 + 4.– Hauteskunde Batzordeak desenkusak ebaztea.

79 + 6.– Hauteskunde Mahaia eratu eta bozketa egitea.

85 + 2.– Hauteskunde Mahaia bilkura eratzeko akta bidaltzea Hauteskunde Batzordeari, eta, bertan, boto-paper baliogabeen edo erreklamazioa eragin dutenen kopurua adieraztea. Orobat, boto-zenbaketako jatorrizko akta ere igorriko dio.

87 + 5.– Jatorri Deituraren Hauteskunde Batzordeak kontseilukideak aldarrikatzea.

92 + 4.– Kontseilukideen aldarrikapenaren aurkako errekurtsioak aurkeztea, Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularri.

96 + 3.— Jatorri Deituraren Hauteskunde Batzordeko buruak errekurtsioak ebatzi eta kontseilukide-karguak esleitzea.

99 + 5.— Kontseilukide hautetsiei dagozkien egiaztgutunak bidaltzea.

104 + 6.— «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzailearen osoko bilkura egitea, kontseilukide hautetsiak karguaz jabetzea, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko titularrari kontseiluburu eta kontseiluburuorde izateko proposatuko zaizkion pertsonak hautatzea.

110 + 6.— Kontseiluburu eta kontseiluburuorde izateko proposatutako pertsonak jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko titularrari.

II. ERANSKINA

BOTO-PAPER OFIZIALAREN EREDUA

«Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko kontseilukideak hautatzeko hauteskundeak, ekoizleen (mahastizainak) eta elaboratzaileen (Upeltegi Elaboratzaileak eta Botilaratzaileak) sektorearen ordezkartzan

SEKTOREA (1)

AZPIERROLDA (2)

Hautagai hauei ematen diet botoa (3):

Titularra:

Ordezkoa:

(Adierazi nori ematen diozun botoa)

– (1) Ekoizleen edo elaboratzaileen sektorea:

– (2) Azpierrelda:

V-1.– Mahastizainak, 4,08 hektareatik beherako azalera inskribatuta dutenak.

V-2.– Mahastizainak, 4,08 hektarea edo gehiago eta 14,90 hektarea baino gutxiago inskribatuta dutenak.

V-3.– Mahastizainak, 14,90 hektarea edo gehiago inskribatuta dutenak.

– (1) Elaboratzaileen eta botilaratzaileen sektorea:

– (2) Azpierrelda:

B-1.– Upeltegiak, 45.000 litrotik behera ekoizten dutenak.

B-2.– Upeltegiak, 45.000 litro edo gehiago eta 108.000 litro baino gutxiago ekoizten dutenak.

B-3.– Upeltegiak, 108.000 litro edo gehiago ekoizten dutenak.

(3) Hautagai bakoitzaren izen-abizenen ondoan, parentesi artean, bakoitzaren hautagai-zerrenda agertuko da.

III. ERANSKINA

ZENBAKETA-AKTAREN EREDUA

Behean akta hau izenpetzen dutenek, hau da, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko kontseilukideak aukeratzeko Hauteskunde Mahaia osatzen duten mahaiburuak, ondokoek eta ikuskatzaileek (halakorik egonez gero), honako hau

EGIAZTATZEN DUTE: gaurko egunez Hauteskunde Mahai honetan egiaztatutako boto-papere-
ren zenbaketa eginda, hau da emaitza:

Hautesleak:

Bozkatu duten hautesleak:

Boto-paper baliodunak:

Boto-paper baliogabeak:

Boto-paper zuriak:

Boto baliodunak honela banatzen dira:

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Jauna/andrea:

(Hautagai-zerrenda):

Azpierrolda

(Letraz):

(Zenbakiz):

Eta hau dagokion lekuan ager dadin izenpetzen dugu, Leioan,korenn.